

Galtzaundi



ESKUALDEA: Alegiako Gaztetxeak 21 urte martxan >>> Tolosaldean Ikastn zerbitzua ezagutuz

>>> Anoetako, xake-txokoak harrera bikaina **ELKARRIZKETA:** Jose Antonio Rekondo

KULTURA: Oroimenaren Eskerrak Zuri

KIROL SALTSA: Ana Usabiaga: Tolosa CFko txirrindulari jubenila olinpikoen pare



*Hamar urte
eszenatoki gainean*



Elbarrena industrialdea 72-1 - Telf: 943 888232 - jaiak@jaiakdenda.com - www.jaiakdenda.com ZALDIBIA
Plaza Majori 12 (beste dendatik km 1-era Zaldibiako errepidean) - Telf: 943 888324 - ORDIZIA

Senda Bide

Dieta diplomatuen aholkularitza profesionala

Dieta pertsonalizatuak
Doako bisitak



- Elkartum hiriingurua
- Kontsulta nestuna
- Zabalentzako elkartum
- Liburako urduak irratzi
dirigiu.



Dieta eta
jainarrak Añbi

San Iñakiak, 14 - Telf: 943 856 444 - Ibañeta
Kamen Kalea, 21 - Telf: 943 859 140 - Ibañeta



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagire, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkartea, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juan Kar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALITZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oñena, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta initzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza jaso du.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalararen eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Txolarre Irratia: Txiki baino sendo
- Virginia Etxarri: Gizonak eta Nessa

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- Buzoietan jasotzen dugun publizitatearen hizkuntza aztergai



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Alegiako Gaztetxeak 21 urte martxan
- Tolosaldea Ikastn zerbitzua ezagutuz
- Anoetako xake-txokoak harrera bikaina

10-14 orrialdeak

Galtzaundi 293

2009ko urtarrilaren 9a

Iritziaren Leihoa: Txolarre irratia eta Virginia Etxarri	4-5
Eskualdeko albistek:	
Alegiako Gaztetxeak 21 urte martxan	10-11
Ikastn zerbitzua ezagutuz	12-13
Anoetako xake-txokora bisita	14
Kultura: oroimenaren eskerrak zuri	20-21
Kirol Saltsa: Ana Usabiagari elkarrizketa	22-23

ERREPORTAIA

Bide Ertzean, 10 urte eszenatoki gainean



7-9 orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Arramelekoa ttikia egin zen eta inguruan industria ugari zuenez garai hartako Jose Caballero alkateak, Iurreamendiko jabea zen Muñoa fundazioarekin hitz egin eta honek lurrak jarri zituen. Bestetik, Eugenio Insausti donostiarri bere maitale tolosarra hil zitzaion, eta honek Tolosagatik zerbait egin behar zuela eta, asko lagundu zuen. Tolosa oso industrializatua zegoen eta burgesia indartsu agertu zen. Tolosako Bankua ere bazen. Tolosarrismoarentzat Iurreamendi bere izatearen arrazoi bihurtu zen. Iurreamendiko sarrean zegoen ongileen zerrenda osoa eta denek nahi zuten bertan agertzea. Dirua eman zuen batek protesta egin zuen bere izena agertzen ez zela eta.”.

- Jose Antonio Rekondo

17-19 orrialdeak



TXIKI BAINA SENDO

TXOLARRE IRRATIKO TALDE ERAGILEA

Txikiak gara, baina gauza handiak egiten ditugu.

Pasa berri den 2008an ere, argi utziu dugu hori eskualdean. Tolosaldeak, erronka handia zuen urriaren Sean. Ikastola txiki batek, Iru-rakoak, Kilometroak jaiaren antolakuntza hartu zuen bere gain. Herri txiki batek, Irurak, hamarnaka mila lagun harrera egiteko prestatu behar izan zituen herriko kaleak. Eta eskualdeko irрати txikiak ere, Txolarrek, erronka handi bati egin zion aurre egun hartan: Kilometroetara hurbildutako jende guztiari megafonia zerbitzua eskaini zion. Ikastolaren aldeko jaia bezalako antolakuntza erraldoi batek, eskualde osoaren elkartasuna, errespetua eta parte hartzea izan ditu oinarri. Bide hori egin du baita ere Txolarre Irratiak azkeneko 8 urteotan.

Herritarrek izan gara, Tolosaldeko euskarazko irratia kudeaketaren ardura geure gain hartu dugunak. Kalitatezko zerbitzu baten alde batu ditugu indarrak. Gure eskualdeko gizarte egitura, komunikazio ohiturak, herritarren parte hartzea eta iritzia emateko eskubidea, forma-

kuntza eta gertuko eragileen aldeko apostua izan ditu helburu Txolarre Irratiak.

90. hamarkada bukatuaren, eskualdeko hainbat herritar antolatu eta Tolosaldean euskara hutsezko irрати bat sortzeko ideia mamitzen hasi ginenean, jakin bagenekin, geure lana ez zela asmo hori gauzatu ta ikusiko genuen egunean bukatuko. Txolarre Irratiak beti izan du, hazteko eta kalitatean hobetzeko bokazioa. Eta bide hori egin du orain arte. Elkarrekin antolatu, elkarrekin konpartitu, elkarri lagunduz sortu dugu geure-geurea dugun irratia. Txikiak bai, tamainaz, baina haundia bere oinarrian.

Tolosaldeko herritarrek osatutako oinarri zabal horrek eman dio aukera Txolarre Irratiari eskualdeko errealitatea ezagutzeko, al-daketa sortzeko eta guztiontzat etorkizun hobea pentsatzeko. Euskara hutsezko komunikabideak ezin gara soilik bizirautearekin konformatu, iraun eta eragin behar dugu. Eskualdean erreferente izanik baino ez dugu lortuko euskararen normalizazioan eragitea.

Tolosaldeko komunikabideon ekosistema honetan anabasa izugarria bizi dugu. Kolore, mota eta izaera ezberdineko espezieak topa ditzakegu bertan. Espezie horietako batzuk, kanpotik etortzen zaizkigu gure ekosistema inbaditza eta gehientsuenetan gainera, erdara hutsean. Ez dugu guk, biodibertsitatearen aurka hitz egingo, baina ekosistemaren oreka arriskuan ikusten dugu, baldin eta bertako espezieak babesten ez baditugu.

Badakigu, antolakuntzarako urteotan erabili ditugun tresnek indarra galdu dutela. Neurri handi batean, jendar-te honetan erein duten pasibotasunaren haziak arrakasta handia izan duelako. Jendar-tearen antolamendua guztion ardura da eta nolako komunikabideak nahi ditugun erabakitzea, berriz, gu guztion eskubidea da. Zortzi urteotako prozesu honetan, eskualdearen interesak eta premiak zeintzuk diren ezagutzeko gaitasuna izan du Txolarre Irratiak eta behar komunikatibo horiek guztiak ase ditu. Tolosaldean zehar barreatutako esperientzia eta ezagutza bereganatu ditu. Herritarrek beraiek eraturako komunikazio eredu

“Tolosaldeko komunikabideon ekosistema honetan anabasa izugarria bizi dugu. Kolore, mota eta izaera ezberdineko espezieak topa ditzakegu bertan. Espezie horietako batzuk, kanpotik etortzen zaizkigu gure ekosistema inbaditza eta gehientsuenetan gainera, erdara hutsean. Ez dugu guk, biodibertsitatearen aurka hitz egingo, baina ekosistemaren oreka arriskuan ikusten dugu, baldin eta bertako espezieak babesten ez baditugu.”

parte hartzaile eta askean sinisten dugu eta horren alde borrokatuko dugu aurrerantzean ere.

Aipatutako eredu, hurrengo urteetan galbidean egon liteke eta orduan Tolosaldeak galduko luke gehien. Beraz, Txolarre bezalako proiektuen inguruan indarrak biltzeko garaia da orain. 2010. urteko abenduaren 26an beteko ditu eskualdeko irратиak 10 urte. Ea ordurako guztion artean, merezi duen tokia ematen diogun Tolosaldean Txolarre Irratiari. ■

ZETA^{SL}
MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutza
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

 **GORRI**

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643



GIZONAK ETA NESSA

VIRGINIA ETXARRI

lkaslea

Elizaren izkin batetan diru eske da gizona. Eskua zabaldua pasealekuko norbaitek txanpon bat eman diezaion itxaroten ari da. Ez du bazkaltzeko aukerarik izan, tripa-orroek gose dela diote, iluntzen ari du eta bost xentimoko bi, hamarreko hiru eta hogeitxentimoko txanpon bat soilik ditu eskuan. Begiak goxo-goxo ireki eta ixten zaizkio. Zerbait somatzen du belaeanean, bere lagun Nessa da; hau ere gose da; egunak daramatza mokadurik jan gabe. Biek geldi itxaroten dute eguna amaitzea eraikinare txoko batetan. Jendeak ez ditu ikusten, elizaren harritzko paretarekin bat egin eta desagertzen omen dira. Kanpaiek zortziak jo dituzte. Gizonak dirua poltsikotan sartu, lurrean duen plastikozko poltsa eta motxila jaso ditu eta elizaren izkina utzi du.

Eskuak bere arnasarekin berotzen saiatzen da. Hotz handia egiten duela eta agian bufanda jarri behar zuela pentsatzen du. Ingurura begiratu eta denek koloretako opari poltsak dituztela ohartzen da. Berak ez du oparirik inorentzako. Barrutik atea irekitzen dute, eta amak masaillean muxu bat ematen dio. Etxeko egongelan tximinia jarrita dago eta giro abegitsua antzematen da. Hamar bat senide dira dagoeneko mahaian eserita. Gizona ez da gai bere iloba gazteenak elkarrengandik bereizteko: nor ote da Jon eta nor Ander? Lehengusinak soineko eta txapeltxo arrosez jantzitako panpin txiki bat besoetan duela ikusten du. Zer ote dabil panpina horrekin? Bat-batean, emeki-emeki panpintxoaren behatz txikia mugitzen da. Gizona, bere lehengusina ama izan dela konturatu da.

Neskatoari zer esan ez daikiela harengana hurbildu eta

metro batera so geratu da. Beregandik datorren beroa sentituz eta eskuetan duenari bista kendu gabe barnean argitxo bat piztu zaio. Danbolinak birak ematen ditu eta garrrek gizonaren begiak goxo goxo ireki eta ixtea eragiten dute. Bere gorputzaren pisua somatzen du, hankek deskantsua eskatzen diote buruak lo egin dezan. Danbolinako neskatoak periodiko paper zatitxo zahar batetan dozena erdi gaztain eskeintzen dizkio gizonari eta honnek irri batekin eskertzen dio bere eskuzabaltasuna. Gaztain bati putz egin ondoren Nessa-ri jateko ematen dio pasealekutik aurrerantz jarraintzen duten heinean. Banketxe bateko sarrera da gauak igartzeko izaten duten tokia gizonak eta Nessak. Zakuan sartu da, motxilatik aldizkari bat atera eta irakurtzen saiatzen da.

Aurreko gaua oso gogorra izan zen, ez zuen lo egiteko

“Eskuak bere arnasarekin berotzen saiatzen da. Hotz handia egiten duela eta agian bufanda jarri behar zuela pentsatzen du. Ingurura begiratu eta denek koloretako opari poltsak dituztela ohartzen da”

ia aukerarik izan. Kanean jende ugari zebilen soinu egiten. Horregatik, orain betazalek begi barruari irabazten diote. Aitaren laneko anekdotek eta arrebak azaltzen dituen Argiñanoren janaria prestatzeko errezetek bost axola diote gizonari. Ez du turroia eta patxaran kopa iristea itxaron nahi, etxe horretatik alde egin nahi du. Isilean ondoko gelan duen txamarra hartu eta etxetik irtetzen da.

Neguaren hotza eta bakardadea sentitzen dute. Zakua eta izarez estaltzen dute beraien gorputza sudurra tapatu arte. Begiak dira soilik ingurua ikusteko geratzen zaiena, eta ez dute ezer gehiago beharrik. ■

Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

IRASTORZA GARRAIOAK

Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxa: 943 671 865

Buzoietan jasotzen dugun publizitatearen hizkuntza aztergai

2009AN EGITASMO BERRIAK JARRI DITUZTE MARTXAN UEMA, GALTZAUNDI ETA KONTSEILUAK

Erredakzio Batzordea

Empresek, merkatariek, erakunde publikoek eta beste eragile askok Tolosaldeko udalerrietako buzoietan botatzen dituzten agiritan euskararen erabilera neurtzea izango da UEMA, Galtzaundi eta Kontseiluak, herritarrekin elkarlanean, burutuko duten lana. Tolosaldeako 8 herrietako buzoiak izango dira aztergai. Tolosa, Anoeta, Alegia, Irura, Ibarra, Villabona, Zizurkil eta Amezketako herritarrak izango dira egitasmo honetan parte hartuko dutenak. Agian, Aduna eta Ikaztegietako herritarrak ere parte hartuko dute.

Neurtutako agiriek euskaldunon hizkuntz eskubideak eta egun dugun legezko markoa zenbateraino betetzen duten zehaztea izango da egitasmo honen xedea. Euskaldunon hizkuntz eskubideak kontuan hartzen ez dituzten eragileei jakinaraztea zer nola jokatzeko duten eta jarrera alda dezaten eskatzea

Tolosaldeko herrietako buzoietan jasotzen denaren hizkuntz segimendua egiteko egitasmoa jarriko dute martxan UEMA, Galtzaundi eta Kontseiluak. Gai hau ez ezik, beste egitasmo batzuen berri ere emango dute urtarrilaren 15ean burutuko duten prentsurrekoan.



izango da zeregin nagusia. Izan ere, euskaldunon hizkuntz eskubideak urratu egiten dira eta euskaldunoi ez baitzaie aukerarik ematen informazio komertziala euskaraz jasotzeko. Eragileei, gutunen bitartez jakinaraziko zaie antolatzaileen nahia zein den, hau da, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Legea aipatzea eta publizitatea euskaraz ez egitea legearen izpirituaren kontra-koa dela adieraztea.

Herritarrak jasotako publizitatea hilabetero jasoko da eta hau aztertu ondoren, buzoietan jasotzen den propagandaren egoera zein den gizarteratzeko datuak publikatuko dira.

Dagoeneko, Tolosaldeako herri batzuek oniritzia eman diote egitasmoari eta hau plazaratzeko, urtarrilaren 15ean, eguerdiko 12etan, prentsurrekoa emango dute UEMA, Galtzaundi eta Kontseiluko kideek Tolosako Kultur etxean. Buzoietan jasotzen dugun hizkuntz segimendua egiteaz gain ere, 2009. urtean martxan jarriko dituzten egitasmoak ere azalduko dituzte. ■

antza



Bide Ertzean, hamar urte eszenatoki gainean

TALDE TOLOSARRAK, URTARRILAREN 16AN, GAUEKO 22:00ETAN LEIDORREN ESKAINIKO DU KONTZERTUA

Leire Zubeldia

Hamar urte: nondik begiratzten zaion, asko edo gutxi izan liteke. Musika talde baten bizitzaz hitz egiten badugu, hamar urte bada zerbait; oro har, taldeen ibilbideak ez baitira horrenbeste luzatzen. Bide Ertzean talde tolosarra hamargarren urteurrenera iritsi izana “kideak gustura dauden seinale, eta taldeak, jendartean ohiartzuna izan duen seinale da”, taldeki-deen ustez. Nahitaez, hamargarren urteurrenak badu ospakizun kutsu bat, eta hau izan da Bide Ertzeanek zuzeneko diskoa ateratzearren arrazoietako bat; baina ez bakarria. Ima-

Imanol (kitarra eta ahotsa) eta Jon Ander (baxua eta korduak) Ubeda, Karlos Aranzegi (bateria), Fran Iturbe (kitarra) eta Joxerra Senperenaren (teklatura) Bide Ertzean taldeak hamar urte egin ditu. Urteurren borobila aitzakia bikaina iruditu zaio boskoteari zuzeneko bat grabatzeko. Urtarrilaren 16an Leidorren eskainiko duten kontzertuan, taldeak argitaratuta dituen sei diskoetako abestiak joko dituzte. Bertan jasotako soinu eta irudiekin CD-DVDa plazaratuko dute. Guzti honengatik kontzertu berezia izango da, bai ikuslearentzat, eta noski, baita taldekideentzat ere.

nol Ubeda, taldeko abeslariak, ongi azaldu du zuzeneko CD-DVDaren zergatia: “Boskote moduan eroso sentitzen gara, bai estudioan eta bai estenotoki gainean: taldeak soinu sendoa hartu du, pisua hartu du. Momentu onean gaudela iru-

ditzen zaigu, eta hori jaso nahi dugu”. Bide Ertzeanek Euskal Herriko makina bat estenotoki zapaldu ditu hamar urte haue-tan. Zuzeneko taldea denik ezin ukatu. Horra hor beste arrazoi bat: “Zuzenekoetan sortzen den giro hori jaso nahi

dugu eta CD-DVD formatua oso egokia da horretarako”. Era honetan, Bide Ertzean taldea ikusentzunezko euskarrian ere jasota egongo da.

“APARTEKOA IZANGO DA”

Urtarrilaren 16an Leidorre-ra joaten denak Bide Ertzean taldearen kontzertu bat ikusiko du. Baina Leidorrekoa, beste kontzertu bat baino zerbait gehiago izango da. “Lehenengo aldiz atzera begira jarriko gara eta disko guztietako kantutak joko ditugu. Horietako asko gainera, azken bost urteetan ez ditugu zuzenean jo. Zerbait kantu boskotera egokitu behar izan ditugu eta itxura berria hartu dute”. Bide Er-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

tzeean zaleentzat kontzertu berezia izango da, baina baita taldekideentzat ere. Izan ere, Bide Ertzean topagune bat da taldekideentzat. “Joni eta ni Deabruak Teilatuetan taldean gabiltza, eta geure lana dugu. Karlos Aranzegi, musikari profesionala da eta birak egi-

Ikusentzunezko lengoaia berria da guretzat. Gainera, lan talde handi bat dago atzean, eta hauen koordinazioa ere gure ardura da”.

Taldearentzat hain berezia den kontzertua Leidorren egitea, Leidor bera ere taldearentzat berezia den seinale da. “Joxerra Senperenak esaten du, Leidor Bide Ertzeanen le-

zeneko CD-DVDaren egitasmoa lantzen, baina aurreko bi hilabeteetan aritu dira Garate Estudioetan kantuak berbegiratu eta entsaiatzen. “Atzera begira jartzean atera dugun lehenengo ondorioa, kantutegi bat osatu dugula da. Konturatu gara, baztertuta genituen zenbait kantu zaharrek, oraindik gutaz hitz egiten dutela, eta

eta itxura berria hartu dute”. Prozesu honetan, abesti batzuk baztertu egin dituzte, eta azkenean, 22 abesti prestatu dituzte zuzenerako.

Kantuen egokitzapenetan, Joxerra Senperenaren ekarpena azpimarratu nahi izan du Ubedak. Izan ere, musikari donostiarra ez zen taldearen lehenengo hiru diskoetan egon. “Hainbat kantu boskotera egokitu ditugu eta Joxerrearen ekarpenari esker, hazi egin dira”. Adibide moduan jarri du 1998ko Elkartasun eguneko kantua, *Badator eguna* izenekoak. “Azken urteetan ez dugu zuzenean kantu hau jo. Hala ere, Bide Ertzean zaleek beti eskatu izan digute hau jotzea. Orain, lehenengo diskoko abesti hau berriro lantzen hasi garenean, konturatu gara baduela zerbait berezia. Joxerrak ez zuen kantu honetan parte hartu, eta orain bere ekarpena nabaritu egingo da”. *Bide Ertzean* kantua ere joko dute, gaitzetzeko disko guztietako abestiek batera. Eta *Non dira* lanak ere, pisu handia izango duela aurreratu du Imanolek. “Aukeraketa egiterako garaian bi helburu izan ditugu kontutan: taldearen ibilbidea islatzea eta egiten dugun musikaren aniztasuna jasotzea”. Nola ez, kantu berriak ere eskainiko dituzte. “Taldea bizirik dago, abesti berriak egiten ari da, eta hori ere helarazi nahi dugu”.



ten dabil bakarlarri ezberdinekin. Joxerra Senperena ere, Fito y los Fitipaldis taldearekin ibili da kontzertuak ematen, eta taldearen hurrengo diskoan ere parte hartuko du. Fran Iturbe berriz, AEBetan bizi da, batekin eta bestearekin kontzertuak emanez. Kontzertu hau berezia izango da, boskote moduan elkartuko garelako”, dio Imanolek. Oholta gainean ahal duten ondoen egiteaz gain, zuzeneko honetan beste ardura batzuk ere badituzte. Honek ere berezi egiten du ekimena. “Egin beharrekoari ikusentzunezkoa grabatzeko ahalegina gehitu behar diogu.

ku naturala dela”. Ez alferrik; 1998an, euren lehenengo kontzertua Leidorren jo baitzuten eta disko gehienen aurkepenak ere bertan egin dituzte. “Gainera, kontzertua muntaia handi bat izango denez, (irudi eta bideo proiektzioa, argiketaria, soina...) dena ondo prestatzeko denbora behar dugu. Udaleko kultura batzordeari esker, aste betez Leidor guretzat izango dugu.

ATZERA BEGIRA

“Helmuga bezain atsegina izaten ari da bidaia”. Sentsazio hori dute Bide Ertzeanen. Duela urte bete hasi ziren zu-

ez dutela gaurkotasunik galdu”. Estudioan daudela, askotan galdetu omen die euren buruei “baina, zergatik ez dugu kantu hau azken bost urteetan jo?”.

Guztira, sei diskoetan kalderatutako 60 kantu inguru izango ditu talde tolosarrian kantutegiak. Hauetatik 30 kantu aukeratu zituzten hasieran. “Aukeraketa egitea ez da erraza izan. Argi genuen gauza bakarra, disko guztietako kantuak jaso nahi genituela zen. Kantuak berriro gure sentitu behar genituen zuzenean jo ahal izateko. Horregatik, zenbait kantu egokitu egin ditugu,

BERASTEGIKO ZUZENKOA MUGARRI

Urrian bete zituen Bide Ertzeanek hamar urte. Hori ospatzeko, lagun arteko festa moduan, kontzertu bat eskaini zuten Ubeda anaiek eta Karlos Aranzegik, Berastegiko Urepel elkartean. “Berastegiko elkarrekin lehendik ezagutzen genuen. Harrera ona egin zigiten, eta lekua gustuko genuenez eurengana jo genuen berriro”. Kontzertu ederra izan zen, bai bertaratu zirenentzat



eta baita hirukotearentzat ere. “Oso gustura egon ginen. Gure lagun asko hurbildu ziren. Kantu zaharrak jo genituen, eta jendeak izugarri eskertu ziren. Orduan konturatu ginen, atzera begira jartzeak zentzua zuela, eta oso gauza aberasgarria zela aspaldiko kantuak berreskuratu, eta jendearekin konpartitzea”. Duela urte bete, zuzeneko CD-DVDa ateratzeko ideia lantzen hasi zirenean, zalantza asko izan zituzten, ahalegin ekonomiko izugarria suposatzen baitu formatu honetan lan bat kaleratzeak. Berastegiko kontzertuan uxatu zituzten zalantza guztiak. “Orduan hartu genuen erabakia: Merez du hau egiteak!”.

1998 - 2009

Taldekieen ikasketak zirela eta Deabruak Teilatueta taldeak etenaldi bat izan zuen 1998an. Artean, Jon Ander eta Imanol Ubedak hainbat kantu zituzten kaxoian gordeta, Deabruak-en estilotik urrun xamar gertzen ziren. Karlos Aranzegi lagunari egin zioten propo-

samena: “Zergatik ez ditugu kantu hauek lantzen? Ea zer ateratzen den!” Horrela hasi zen Bide Ertzean. Zalantza askorekin ekin zioten bideari. “Nik ez nuen inoiz kantatu, eta proposatzen genuen musika ere ez zen ohikoa garai hartan”. Hamar urte igaro dira: Hasiera hartako hirukotea boskote da orain, eta gauzak oso argi dituzte. “Segurtasunean eta erosotasunean irabazi dugu. Bidean lagun asko egin ditugu. Fran eta Joxerra musikari apartak dira, eta hasieran proiektu xumea zena asko aberastu dute”.

Ibilbide musikarari dagokionean, hamar urte haue-tan, Bide Ertzeanek nortasun marka bat lortu duela esan liteke. “Azkeneko diskoarekin batek baino gehiagok esan digu: nabari da Bide Ertzean dela. Hori oso garrantzitsua da guretzat”. Entzuten duten musikak ere badu eraginik euren kantuetan. “Atera genuen lehenengo diskoan garai haietan entzuten genuen musika islatzen da. Rock-ak ere toki garrantzitsua du gure gustuetan. Gure alderik

rock-eroena *Grisa* diskoan agertu genuen. Joxerra talde-
ra batu zenean, bere pianoa-
rekin taldea beste eremu bat-
zuetara zabaldu zuen. Akaso,
Britania Handian egiten den
pop estilora hurbildu ginen.
Eta *Non Dira* diskoan berriz,
rock amerikarrera gerturatu
ginen.

URTE AMAIERARAKO CD-DVDA KALEAN

Bide Ertzeaneko kideak, gauzak patxadaz eta ondo egin zaleak dira. Horregatik, ez dute inongo presarik Leidorren grabatuko den CD-DVDa argitaratzeko. Hala ere, aurtengo urte amaierarako kalean izango dela iragarri dute. CDan, kontzertuko audioa jasoko da. DVDan berriz, zerbait bereziagoa egin nahi dute. “Raul Lopez zuzendaria dokumental bat egiteko lanean ari da. Leidorreko audio eta irudiak tartekatuz, taldearen ibilbideaz hitz egingo duten hainbat lagun adierazpenak sartuko ditu. Taldekideak ere, banan bana igaroko gara kamara aurretik”.

Lehenagoko lanak badituzte ordea: Urtarrilaren 16ko kontzertua. “Egun horretarako eskatzen dugun gauza bakarra arazorik ez edukitzea da, eta noski, zuzeneko kontzertu batean egoten den berotasuna sortzea”. Askoren galdera izan liteke, Bide Ertzeanek bidean egin dituen lagunak, (Gorka Urbizu, Mikel Erentxun, Kike Gonzalez...) Leidorrera gondibatuko ote dituzten. Imanolek eman du erantzuna: “Hasiera batean pentsatu genuen aukera horretan, baina azkenean, ezetz erabaki genuen. Gu, boskote bat gara, eta oso gustura eta eroso jotzen dugu modu horretan. Garenarekin ahalik eta fidelenak izan nahi dugu”. Bide Ertzeanen proposamena boskote moduan defendatu nahi dute.

“*Boskotea gara,
eta oso eroso
jotzen dugu
horrela*”

ZUZENKO DISKOA ETA GERO, ZER?

Hamar urte bete dituzten taldeen diskografietan begiratu-tuz gero, ia denek dute zuzeneko disko bat eta errekopilatorio bat. Bide Ertzeanek ere bere zuzeneko diskoak izango du azkenean. Pauso hau eman eta gero, talde tolosarrari zein urrats geratzen zaio egiteko? “Gu ez gara errekopilatorioak egitearen aldekoak. Baina bilduma bat egiteko material dexente daukagu: zuzenean grabatutako kantuak, argitaratu gabekoak, maketak... Hala ere, ez dut uste, epe motzean behintzat, horrelakorik argitaratuko dugunik”. Kantu berri mordoa ere ba omen dute kaxoi batean, argitara ateratzeko zain. “Kantu horiek ate joka ditugu. Zuzeneko igarotakoan atea irekiko diegu eta ikusiko dugu zer gertatzen den”.

Taldekideei zail egiten zaie urtarrilaren 16tik haratago begiratzea. Burubelarri ari dira Leidorreko zuzeneko prestatzen, eta horregatik, ez dute asmo argirik. Gauza bakarra utzi nahi dute argi: Zuzeneko ez da agur bat. “Badirudi, hamar urte egin ditugunez, eta zuzeneko disko bat kaleratu behar dugunez, taldea hementxe amaituko dela. Ezin da jakin etorkizunak zer ekarriko duen, baina inondik inora, gure ideia ez da taldea uztea”. Urtarrilaren 16aren ostean taldekideak euren lanetara itzuliko dira. CD-DVDa kaleratzen denean, ostera elkartuko dira kontzertuak eskaintzeko. Gero, Bide Ertzeanek bidea egiten jarraituko du. ■

ALEGIA >>> ALEGIAKO GAZTETXEAK 21 URTE BETE DITU

Hau ez zuen inork espero

“Orain hogeita bat urte, inork, zuen seme-alabak gaztetxera joango zirela esan izan balizute, kaskotik joanda ote zegoen galdetuko zeniketen”, dio Imanolek. “Noski baietz”, erantzuten dio Iñakik, “hau ez zuen inork espero”. Hogeita bat urte bete ditu 2008an Alegiako gaztetxeak, eta gazte ‘beterano’ eta gazte ‘gazteak’ bildu ditugu garai zaharrak eta berriak uztartzeko.

Amaia Gaikoaetxea

Iñakik, Jabik, Txarlik, Arrik eta Aitorrek (gazte ‘beteranoek’) garbi dute garai hartako beharrek eta premiek bultzatu zutela Alegiako gaztetxearen sorrera. “Alde batetik, urte haietan langabezia handia zegoen, kalean geunden. Horrez gain, drogen arazoa ere sartua zegoen herrian. Bestetik, gaztetxeen mugimendua zabaltzen hasia

zen Euskal Herrian, eta hori ere iritsi zen honaino”. Zerbait behar zuten biltzeko, euren gauzak antolatzeko... Herriko hiltzgia izan zen eraikinari bota zioten begia, baina udaletxean eskaera egin bezain pronto, mataderoa bota egin zuten. “Udalaren erantzuna ikusita tren geltoki ondoan dagoen Renferen biltegiara jo genuen”. 1986ko abenduan sartu ziren lehen aldiz gaur egun Alegiako gaztetxea izaten jarraitzen duen eraikinera. “Zoragarria zen han ikusi genuena”, laburbiltzen du Iñakik.

Gogotik egin behar izan zuten lan eraikin hura gaztetxe bihur zedin: argi-indarra eta ura lortu, antzetzokia eta barra montatu... “Hori bai, gauzak zetozen moduan egiten genituen, nola egin behar ziren erabakitzeko bilerarik egin gabe”, garbi uzten du Jabik. “Horma margotzen zuenak nahi zuen bezala margotuko

zuen, eta norbait kolorea gustatzen ez zitzaiola eta kexan jotaten bazitzaion, ‘hurrengon heorrek pinta zak’, eta kito”.

Gaztetxeako lehenengo kontzertuak 1987a ondo aurrerata zegoela ospatu ziren. “Hasierako kontzertu haiek defizitarioak izaten ziren”, dio Iñakik. “Karriko izan zen gaztetxera etorri zen lehenengo taldeetako bat. Zortzi lagun joan ginen kontzertua ikustera; bada, kontuak atera, zortzi lagun bakoitzak 200 pezetako sarrera ordainduta... gaur egungo 20 euro ere ez genituen aterako”. Eskerrak taldeak musutruk etortzen ziren jotzera. “Guk afaria eskaintzen genien trukean”, azaltzen du Jabik, “eta sarrerak kobratzetik zerbait ateratzen bazen gaztetxearen eta taldearen artean banatzen genuen, baina hortik aurrera, ez zuten ezer gehiago kobratzen”. Karrikoren adibidea jarritzen du Iñakik. “Soriatik Ale-

giaraino etorri ziren kontzertu bat ematera afari baten truke, ez zuten pezeta bakar bat ere eramane bueltan”. Aurrerago, jendea kontzertuen arabera mugitzen hasi zen, eta orduan kontuak beste tankera bat hartu zuen.

FRONTE EZBERDINETAN BORROKAN

Gaur egun, Alegiako gaztetxeak herrian duen onarpenik ez zuten ezagutu gure solaskide ‘beteranoek’ lehen urte haietan. “Udaletxeak sekula ez zuen gaztetxea onartu, baina hasiera batean ezta herriko jendeak ere. Hain zuzen ere, lehenengo kritikak ez genituen udaletxetik jaso, garai hartako ezker abertzalearen inguruko jendearengandik baizik. Gu haiantzat gaztetxera porroak erretzera eta larrua jotzera joaten ginen, eta kito”. Udaletxeak ere etengabe baztertzen zituela nabarmentzen dute, baz-



2006ko urteurreneko bazkaria.

tertu, zokoratu eta oztopoak jarri. “Behin bilera bat egin zen herriko talde eta elkarte ezberdinekin, eta gazteoi ez ziguten horren berri ere eman”, azaltzen du Aitorrek. “Kontuan hartu behar da udaletxean aurkeztu genituen eskaerak ehun gazte baino gehiagok sinatu genituela, eta hori portzentaia handia da”.

Denborarekin ordea, herri-tarren jarrera aldatzen joan zen. “Orduan ez zegoen, gaur egun bezala, kultur dinamizazioa edo antzeko figurarik, eta herrian antolatzen zenaren ehuneko ehuna gaztetxetik ir-teten zen: diapositiba emanaldiak, antzerkia, kontzertuak, ikastaroak... Hori ikusitakoan jendeak gaztetxeaz zuen iritzia aldatzen hasi zen, eta horren aurrean, udaletxearen jarrera ere baretu egin zen”.


“Gaur egun ez daukagu horrelako arazorik udaletxearekin”, diote gazte ‘gazteak’ diren Imanolek, Gutik eta Xabik, “baina ezta aparteko kolaborazioerik ere”. “Eta ezta onarpenik ere”, azpimarratzen du Txarlik. “UEMAko egutegian herriko talde eta elkarte guztiak ageri dira, baina gaztetxearen arrastorik ere ez”. Diotenez, ezker abertzaleak borroka asko egin du gaztetxearen alde, baina behin udaletxera sartuz geroztik ez dira gazteez gehiegi oroitu, eta aurretik agindutako

zenbait kontu haizeak eraman omen ditu. “Gaztetxea ez da sekula ezker abertzalearekin lotuta egon, ezta beste edozein pentsakera politikorekin ere”, azpimarratu du Aitorrek. Gaztetxe hau bakarrenetakoa izango da udaletxearekin loturarik ez duena. Beste herrietan udaletatik dirulaguntzak jasotzen dituzte, lokalak ere eman izan dizkiete... Hau eta Gasteizkoa izango dira harreman hori gabe funtzionatzen duten bakarrak”.

NOLA ALDATZEN DIREN GAUZAK, KAMARADA...

‘Gazteentzat’ gaur egungo egoera oso bestelakoa da. “Antolaketatik bertatik hasita, lehengo giro hori galdu egin da. Orain, zerbait antolatzeko hiru lagun biltzen bagara, gustura. Lehen gazteak kalean zeuden, langabezia, eta horrek jendea mugitu egiten zuen. Orain, bileretan jendea biltzeko ere komerik izaten ditugu. Gainera, ez dugu mehatxurik, ez dugu udaletxearekin arazorik, eta horrek jendea lasaitu egin du, erlaxatu”.

Iñakik, ordea, ez du egoera hain beltza ikusten. “Inork ez zuen pentsatuko honek hogeita bat urte zutik iraungo zuenik. Gainera, niretzat sekulako meritua du egun bizi dugun gizarte individualista honetan horrelako mugimendu bat



martxan mantentzeak. Gaztetxea zutik dago, eta edozein momentutan ager liteke kezka eta premia batzuk dituen belaunaldi berri bat, berriz ere mugimenduari bultzada emango liokeena”. Arrik garai berrietara egokitzearen beharra azpimarratzen du. “Guk kontzertuak antolatzen genituen orduan jendeak kontzertuak nahi zituelako, baina orain horrek ez badu funtzionatzen, jendeak bilatzen duen hori egin beharko da. Beteranoek pentsatzen dugu gure idealekin jarraitu behar duela gaur egungo gaztetxeak, eta hori ez da guztiz zuzena”.

‘Gazteek’ zein ‘beteranoek’

garbi dute gaztetxea ez dela gazteentzako bakarrik. “Espazio libre bat da, gauzak antolatzeko leku bat, guztientzat irekia dagoena, eta zerbait antolatu nahi duenak libre du horretarako bidea. Askotan gazteen bizkar gainean jartzen da herri osoarentzat ekintzak antolatzeko ardura, eta hori sekulako karga da. Seguru asko, izenean bertan egongo da akatsa, ‘gaztetxeak’ horixe iradokitzen baitu, baina hona edonor etor daiteke nahi duena antolatzera”.

Iñakiren hasierako hitzekin geratuko gara: “Hau ez zuen inork espero”. Ez horixe, ez zuen inork espero. Eta laster zilarrezko ezteiak... ■

CDI Informatika
Osagaiak
Desarroiak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
IASASTU XXI S.L.
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

MATELA'KO
Mertzeria eta
konponketak
Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA

RAKU
Arostegia kalea, 2 - Tolosa

TOLOSALDEA >>> IRAILETIK HONA, 150 HERRITARREI EGIN DIOTE HARRERA TOLOSALDEA INSITUTUAN DAGOEN IK

Ikastn, bizitza osoan zeharreko form

Bizitza osoan zeharreko formakuntzaren beharraz kontzientziaturik dago gizartea. Lan munduan bizi ditugun garai latz hauek, trebaturik egoetaren garrantziaz jabetzen laguntzen dute. BOZI, (Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza) filosofiaren bultzatzaile nagusia eskualdean Tolosaldean Ikastn izan da. 2006an martxan hasi zenetik hona, eskariaren araberrako ikastaroak antolatu eta eskualdeko eskaintza akademikoaren gaineko informazioa bildu du www.ikastn.com web gunean. Ikasturtetik ikasturtera, gero eta gehiago dira, aholkularitza akademiko bila Ikastn-era jotzen dutenak.

Erredakzioa

“ Poliki baina pauso sendoak emanez” ari da bidea egiten Tolosaldea Ikastn zerbitzua.

Hala uste du Gemma Zelaia, bertako koordinatzaileak. Izan ere, urtetik urtera, hazten doa Ikastn-era jotzen duten herritar kopurua. “Gehienak, telefonoz edo presentzialki jartzen dira gurekin harremanetan”. Gutxien erabiltzen den bidea, www.ikastn.com web gunea da. Honi eman nahi diote bultzada. “Web orria tresna garrantzitsua da, eskualdeko eskaintza guztia bertan zentralizatzen baita”, dio Gemak.



Informatika ikastaroak arrakastatsuak izan dira.

Tolosaldean IKASTN

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza



Emakumeak dira zerbitzuaren erabiltzaile nagusiak.

HERRITAR ORORENTZAT ZABALIK

2008-2009 ikasturtea irailean hasi zenetik gaur arte, 150 herritarrei egin diote harrera Ikastn-en. “Ia

ehuneko ehuna 25 urtetik gorakoak izan dira, bereziki haien zuzendua baitago BOZI programa. Hala ere, 25 urte azpitik dituzten zenbait gazte ere etorri zaizkigu”. Zerbitzuaren

erabiltzaileen sexuari dagokionean, aldaketa garrantzitsu bat nabaritu dute azken ikasturte honetan. “Iazko ikasturtean, erabiltzaileen %85a emakumezkoa zen. Irailetik hona ordea gizonnezko asko etorri zaigu, gehienak langileak. Krisi ekonomikoa dela eta, jendeak bere burua formatzeko beharra ikusi du”. Beharrraren araberrako helburu ezberdinak izaten ditu jendeak: “Batzuk, goiz partea edo arratsaldea libre izaten dutela eta, zerbait probetxuzkoa egitearren etortzen dira. Beste batzuk, langabezian daudenak esaterako, lehenbailehen lan munduan sartzeko ikastaro zuzen baten bila jotzen dute gugana”.

GUZTIENTZAT LEHIATILA BAKARRA

Maiz, horrelako zerbitzuetan bakoitzaren egoeraren arabera sailkatzen dituzte erabiltzaileak. Tolosaldea Ikastn-en, denentzat lehiatila bakar bat dagoela azpimarratu nahi dute. “Ez dugu inor etiketatzen. Langabetua, etxeko-andrea edo laginlea izan, denei tratua bera ematen diegu”.

Lehenengo hartuemanen, erabiltzailearen helburuak eta interesak zeintzuk diren jakiten saiatzen dira. “Batzuek zer egin nahi duten argi izaten dute, soilik informazio bila etortzen dira. Baina, beste batzuk, denbora libre dutela eta hori betetzeko edozer egiteko prest egoten dira”. Gemmak ordea, erabiltzaileek dituzten gustuez eta

IKASTN ZERBITZUAN

Formakuntzaren beharra gizarteratzen



2006ko azaroan jarri zuten martxan Tolosaldea Ikastn. Gaur arte egin duen ibilbidea ez da alferrikakoa izan. “Hasiera batean, jendeak ez zekien norra deitzen zuen. Orain, Ikastn formakuntzarekin lotzen dute herritarrek”. 2009. urtea lan handiko urtea izango dela aurreikusten du zerbitzuko koordinatzaileak. “Gaur egun bizi dugun ezegonkortasunak bizitza osoan zehar ikastera behartzen gaitu”.

gaitasunez galdetzen die. Honen arabera, zer ikasi dezaketen azaltzen diete, askotan idatziz. “Zerbait ikasi nahi duenarentzat abiapuntu garrantzitsua iruditzen zaigu bere gaitasunak zeintzuk diren jakitea. Gure helburua jendeari orientazio akademikoa ematea da, baina baita norberak bere burua ezagutzea ere”.

Aholkularitza eta orientazioa ematek haratago doa Ikastn-ek eskaintzen duen zerbitzua: Erabiltzaileei jarraipena egiten diote. “Etorritzen diren herritarren %82ak, gutxienez ikastaro bat egiten du”. Datu hau zerbitzuaren eraginkortasunaren isla da.

ESKUALDEKO 200 ENTITATEK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

Eskualdeko eskaintza kudeatzeko, ikastaroak antolatzen dituzten entitateekin harremanetan jatzeko ahalegina egin behar izan dute Tolosaldea Ikastn-en. Udaletxe, Kz-gune, kirol elkarte, herritar talde, gazte asanblada...

Guztira eskualdeko 200 entitatekin jarri dira harremanetan. “Gure hartu-emana etengabekoa izaten da: ikastaroaren datak, ordutegia, edo lekua dela eta aldaketaren bat egonez gero jakinaren gainean egon behar baitugu”. Ikastn-en eta antolatzaileen harremana informazioa elkar-trukatuzetik haratago joaten da batzuetan. “Elkarteei ikastaroak aurrera eramateko baliabideak aurkitzen laguntzen diegu”. Hori bai: Gemma Zelaiak azaldu duenez, “orain artean, Ikastn zerbitzua izan da entitateengana jo duena. Hemendik aurrera entitateei dagokie Ikastn-era jotzea euren eskaintzaren berri emateko”.

Tolosaldea Ikastn bera ere antolatzailea da. Ikasturte honetan, informatikako hiru ikastaro, sukaldaritza aurreratuari buruzko beste ikastaro bat, eta une honetan egiten ari den literatur sorkuntza tailerra antolatu ditu. “Eskariaren arabera ikastaroak antolatzen ditugu”. Informatikak du arrakasta gehien.

Ikastn.com, webgune bizia eta zuzena

2007ko martxoan martxan jarri zenetik, www.ikastn.com web gunea hobetzen joan da.

Diseinuan salto handia eman du iaztik hona. “Edukiz beterik egon izan da gure web gunea, baina informazio guzti hori ondo antolatzea falta zitzaigun”. Orain, edukiak primeran sailkatu daude. Oso modu errazean eskualdean antolatzen diren ikastaroen gaineko informazio osatua kontsultatu daiteke. *BOZI, albisteak, ikastaroak, entitate formatiboak, kontaktua eta loturak*, ataletan, informazio berritua aurkituko du erabiltzaileak.

205 harpidetu

Webgunean egin den beste berrikuntza bat, erregiratzen direnei eskaintzen zaien asteroko boletín pertsonalatuaren eta sms zerbitzuaren harpidetza da. “Erabiltzailea erregistraturik dagoen forma-

kuntza alorreko ikastaro eta albiste interesagarriak bidaltzen da asteroko boletinean. Sms zerbitzuan harpidetzen bada berriz, interesatu dakioken ikastaroaren gaineko informazioa jasoko du bere mugikorrean”. Zerbitzu hau erabat doakoa da, Ikastn-en lehentasuna herritarrek ikasten jarraitu dezaten bultzatzea baita. Web gunearen bidez, Ikastn-eko koordinatzailearekin harremanetan jar daiteke. Egundateko epean izango duzu erantzuna.

Orain artean bezala, hemendik aurrera ere webgunea hobetzen jarraituko dute, bere burua formatu nahi duenarentzako tresna interesgarria baita. Datorren ikasturterako erronka txiki bat jarri dute: Ikastaroak online (hau da, webgunearen bidez) eskaintzea.

ANOETA >>> DUELA BI HILABATE ZABALDU DUTEN XAKE TXOKOAK HARRERA BIKAINA IZAN DU

Ostiral arratsaldeetan, xakea!

Ostiraleroko, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara elkartzen dira Anoetako gaztetxoak xakean jokatzeko. Duela pare bat hilabete zabaldu zen xake txokoa, eta harrera bikaina izan duela diote antolatzaileek. Helburua, mahaijoko honen bidez ondo pasa eta parte hartzaileen artean giro atsegin bat lortzea da.

Erredakzioa

Ostirala da, arratsaldeko 18:30ak puntupuntu. Jone Doktoriarenak

xake txokoa zabaldu du eta Galtzaundiri barrura sartzeko gonbita egin dio. Lokaleko argiak piztu bezain agudo, Anoetako gaztetxoak iristen hasi dira. Xake-taula mahai gainean jarri, piezak ondo kokatu eta parez-pare joan dira esertzen. “Horrela izaten da ostiraleroko. Oso gustura etortzen dira. Nahiz eta aurretik musika, ingeleza edo eskolaz kanpoko beste ekintzaren bat eduki, ez dute hutsik egiten”, dio Jonek.

Duela pare bat hilabete ireki zuten xake txokoa Anoetan. Jone Doktoriarena eta bere alaba, Ohiane Etxenike, Tolosa – Ibarra xake klubeko kideak dira. Urte mordoan daramate xakean jokatzeko eta txapelketa ezberdinetan parte hartzen. Elkarteko kideen laguntzarekin, duela hiru urte, Anoetan xake ikastaroak hasi ziren ematen. 33 ikasle izatera iritsi dira eta ikastaroei trebatutako xake jokalariek hainbat txapelketetan jardun dute. “Honenbestez, xakean dakien jende asko dago Anoetan. Zaletasun horri bultzatzeko asmoz, xake txokoa zabaldu



Anoetako xake jokalariek xake-txokoa.

genuen azaroan”. Harrera bikaina izan du ekimenak. Jone Doktoriarena arduratzen da txokoaren funtzionamenduz, baina Anoetako Udalaren eta gurasoen laguntza du.

ONDO PASATZEA DA HELBURUA

Hamasei gaztetxo inguru elkartzen dira xake txokoa. “Horietako asko xake ikastaroko ikasleak dira, baina ez da beharrezkoa ikastaroan izena emanda egotea xake txokora etortzeko. Baldintza bakarra xakean jokatzeko jakitea da”, azaldu du. Horrela, jokalariek gazteenak bost urte ditu, eta helduenak hamabost”. Bitxikeria moduan, xake txokora neska ugari etortzen dela nabarmendu du Doktoriarenak. “Oso arraroa da xakean neskak ibiltzea. Iaz, Gipuzkoako topaketetan, 60 jokalarik bildu ziren, eta soilik 3 ziren neskak”. Jone-ren ideien artean dago nesken taldea sortzea.

Funtzionamendua erraza da: Jokalari bakoitzak 10 euro-

ko kuota ordaintzen du urtean, eta trukean, kide bakoitzari jokalaritza txartela egiten zaio. Egoitza 18:30etan zabalitzen den arren, ordutegia ere librea da. “Askok eskolaz kanpoko ekintzekin itota ibiltzen dira, eta horregatik ahal duten orduan etor daitezke. Eta 20:00ak baino lehenago alde egin behar badute ere berdin”. Azken batean, xake txokoaren helburua, ondo pasatzea dela dio Jonek. “Euren artean oso gustura egoten dira, giro oso polita sortu da, eta horrek poza ematen du”. Ordutegia bezala, xake txokora etortzeko adin tartea ere librea da. Ateak zabal-zabalik daude edonorentzat. “Askotan, gaztetxoek gurasoak ere etortzen dira eta eurekin batera jokatzeko dute”. Maiz, lekurik gabe gertatzen omen dira.

OTSAILTIK AURRERA HIRU ORDUZ ZABALIK

Xake txokoaren arrakasta ikusita, otsailetik aurrera hiru orduz zabaldu nahi dute xake txokoa. Kurtso honetara-

ko bestelako helburuak ere badituzte. “Orain 16 txartel ditugu. Helburua, kurtsoa amaitzerako 30 txartel lortzea da”. Kopuru zehatz honen ere badu bere azalpena. Jone Doktoriarenak, Kutxa txapelketa Anoetara ekarri nahi du. “Xake txapelketarik garrantzitsuenetakoa da, baina herrira ekartzeko, gutxienez, 30 jokalarik behar dira”. Kopuru hori lortze aldera lanean jarraituko dute. Hala ere, izango da beste txapelketarik Anoetan. “Kultur asan txapelketa antolatzen du Udalak. Aurten gainera, Irovi S.A babeslea izango da, eta honi esker, jokalariek bakoitzari kamiseta bat oparituko zaio”. Urteroko eskolarteko txapelketarekin ere kontaktatzen dute aurten.

Anoetan bezala, Iruran ere ikastaroak ematen dabil Jone. Beraz, laster izan dezakegu, Iruran xake txokoa zabaldu dutenaren berria. ■

Dietetika Senda Bide

Osasun betean egoteko hamaika proposamen

Ricardo Aldazabal eta Maria Eugenia Martinez de Lezeak urte ugari daramatzate dietetika eta osasunaren munduan. Hamabost urte bete dira Senda Bide denda zabaldu zutenetik. Esperientzia lagun dutela lan egiten dute San Frantzisko pasealekuko 19.ean eta Correo kaleko 3. zenbakian dituzten dendetan.

2007an zabaldu zuen bigarren denda Senda Bidek Correo kalean. Produktu ekologikoak saltzen dituzte bertan: Elikagaiak, produktu kosmetikoak, jantziak eta mota askotako salgaiak dituzte eskuragai. Ricardo Aldazabal, Senda Bideko arduradunak produktu

az gain, produkturik onenak eskaintzen dituzte eta bezeroari jarraipen zehatza egiten diote kalitatezko zerbitzu bat bermatuz. Gainera, bisitak doakoak dira, soilik tratamendua ordaindu behar du bezeroak. Senda Bide, aukera ona da beraz dietan jarri nahi duenaren-

ko produktuak erabiltzen dituztela. “Urte asko eman ditugu laborategi batekin lanean. Ikertzen ibili gara eta konturatu gara, produktu batzuk hobetu egin daitezkeela. Merkatuan dauden formulazioak onak dira, baina zenbait egokitzapen eginda, produktuaren

da berarekin egoteko. Gehienbat nerbio sistemarekin edo digestioarekin arazoak dituzten bezeroak ditugu, bai helduak eta baita haurrak ere”. Bertatik igaro den jende askok frogatu ahal izan ditu jatorri txinatarreko formulen onurak.



San Frantzisko Ibiltokia, 19

ekologikoen duten arrakasta azpimarratu du. “Modan jarri dira, gero eta jende gehiagok erosten ditu mota honetako produktuak”, dio. San Frantzisko kalean duten dendara ere ekarri dute eskaintza hori, baina salgai hauek eskura jartzeaz gain, bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzte hemen. Dietetika zerbitzua, eta sendagile naturistaren kontsulta, besteak beste.

DIETETIKAN BEREZITUAK

Senda Bide dietetika eta elikaduran berezitutako zentrua da. Alor honetan adituak izate-

tzat. Aldazabalek azaldu du prozesu osoa: “Lehenik analitika bat egiten dugu, tratamendu kimikoren bat hartzen ari den galdetu eta pisua hartzen diogu gero bere zama egokia zein den kalkulatzeko. Hori guztia dugunean, dieta personalizatu bat egiten zaio bezeroari. Beti ere, berezoak gustuko duen dieta mota jartzen diogu”. Behin dietan jarrita, asteroko bisiten bidez jarraitzen dute bezeroaren eboluzioa.

Dietetikaz hitz egitean, Ricardo Aldazabalek bereziki azpimarratu nahi izan du, tratamenduetan eurek diseinatuta-

Korreo kalea, 7

printzipio aktiboa hobetu egin daiteke. Gure bezeroentzat onenak diren produktuak lortzen saiatzen gara”, azaldu du. Eraginkorragoak izateaz gain, produktu hauek merkeagoak ere badira, hauen promozioan ez baita dirurik inbertitzen.

SENDAGILE NATURISTA

Hau da Senda Bidek eskaintzen duen beste zerbitzu garrantzitsu bat. Txinako medikuntza tradizionalarekin lan egiten du Senda Bideko naturistak. Hilean behin zabaltzen du kontsulta San Frantziskoko egoitzan. “Hasieratik dago gurekin. Jende ugari etortzen

PRODUCTO AUTENTICO ORIGINAL BIBI

Alicanteko sendagile naturista famatuaren produktu gamma osoaren kudeatzailea da Senda Bide. Gertutik ezagutzen dute produktu sorta honen jatorria, eta bere onuragarritasuna aintzakotzat hartuz, dendako eskaintzan txertatu dute.

Hamaika zerbitzu eta hamaika aukera ezberdin aurki daitezke Senda Bidean, denak osasun betean egoteko. Ohiko ordutegian aurkituko duzu zabalik. ■



Garaiko Inprimategia

Inprimaketa digitalaren bidez, aukera guztiak bezeroaren eskura

Txartelak, egutegiak, postalak, tamaina guztietako kartelak, eskuorriak, triptikoak, aldizkariak... Inprimaketa digitalaren bidez, aukera guztiak jartzen dituzte bezeroaren eskura. Inprimatu nahi den artxiboa dendan jasotzen dutenetik, lana amaituta entregatzen dutenera arteko prozesu guztia eurek egiten dute. Honek, enkarguak azkar eta txukun egiteko bidea ematen diote. Jantziak (kamisetak, sudaderak, barruko-arropa...) ere egiten dituzte, eta web zerbitzua ere eskaintzen dute.

Hamaika urte bete ditu jada Garaiko inprimategiak. San Frantzisko ibiltokiko 14. zenbakian dagoen dendan egiten zuten lan duela gutxira arte, Txaro Garaikoetxeak, Mikel Garaikoetxeak eta Ioseba Zubeldiak. Aurtengo maiatzean ordea, tailerra zabaldu dute. Dendan jasotako enkarguak, (diseinua, inprimaketa, manipulazioa...) hasi eta bukatu, bertan egiten dituzte. "Ohiko fotokopia bat egitera etortzen den bezeroa harriturik geratzen da egin ditzazkegun guzuzak ikustean. Guk ez dugu ezer asmatu, inprimaketa digitalak ematen dituen aukera ugariak baliatzen ditugu", diote Garaikon. Herritik mugitu gabe, gauza ederrak egin daitezke.

Inprimaketa ditigala egiten dute Garaikon. Abantaila handiak eskaintzen dituen inprimaketa sistema da hau. "Lan egiteko oso sistema sinplea da, azkarra, kalitatea eskaintzen duena, eta gainera, aukera guztiak dira posible", esan du Mikel Garaikoetxea, Garaikoko arduradunak.

SISTEMA SINPLEA ETA AZKARRA

Baina hau egitea posible da? Egunero entzuten dute galdera bera Garaikon. Erantzuna ere bera izaten da. "Baietz erantzuten diegunean harriturik geratzen dira, eta hiru egunen buruan enkargua egina izango

duela esaten diezunean are eta harrituago geratzen dira, prezioarekin ere konforme agertzen dira". Izan ere, inprimaketa digitala jendeak uste duena baino sinpleagoa da. "Inprimatu nahi duen artxiboa usb edo cd batean ekartzen du bezeroak. Artxiboa gure ordenagailura pasa eta honi inprimatzeko agindua ematen diogu". "Makina honek, ordu erdian 500 kartel inprimatu ditzake". Inprimaketa digitalak eskaintzen duen beste abantaila garrantzitsua da hori; azkartasuna.

BEZEROAREN BEHARREN ARABERA EGOKITZEN DEN SISTEMA

Bezeroak zer, nola eta zenbat nahi, hura eskaintzen diote Garaikon. Batetik, material ezberdinetan inprimatu dezakete: paper mota askotan, ohialean... Inprimakien tamainari dagokionez ere, telefono txartel edo poltsikoko egutegietatik hasi eta tamaina handiko posterrak egiten dituzte. Kopurua ere ez da muga bat Garaikon. "Bezeroak egutegi bat edo kartel bat nahi badu, bat egingo diogu eta mila nahi baditu mila. Inprimaketa sistema digitalean plantzarik egin behar ez denez, ez dago gutxieneko kopururik". Aukera hau bezeroek eskertu egiten dutela konturatu dira Tolosako inprimategian. Urrutira joan gabe, herrian bertan, gauza politak, azkar eta era sinple batean egin daitezkeela erakutsi nahi du Garaikok. ■

Binilo - textila, arropetarako sistemarik eraginkorrena

Kamisetak, barruko-arropa, sudaderak... ere egiten dituzte Garaikon. Enpresa, koadrila, ikastetxe eta kirol taldeetatik jasotzen dituzte eskariak. Biniloaren bidez egiten dituzte jantzi gehienak. Aurten deskubritu dute sistema hau Garaikon, eta euren hitzetan, kalitatezko serigrafiaz gain, ezagutzen dituzten sistema guztien artean, "sinpleena eta eraginkorrena da". Artxibo digitalean ekartzen da jantzian jarri nahi den testua edo marrazkia. Ordenagailuak mozketa

ploterrera bidaltzen du. Honek, orratz batzuen bidez biniloan testu hori siluetatzen du. Biniloak bi kapa ditu: Biniloa eta transportadorea. Sobran dagoen zatia altxa egiten da, eta siluetatutako testua beroarekin arropan itsatsita geratzen da. Esplikazio edo argibide konplikatu xamarra du prozesuarekin konparatuta. Erraza izateaz gain, emaitza onak eskaintzen ditu biniloak. "Ehunean itsatsitakoa ez da kentzen eta gainetik plantxatu daiteke lasai asko".





Jose Antonio Rekondo, medikuntza eta benefizentziaren ildotik gure historia arakaturaz

“TOLOSARRISMOARENTZAT IURREAMENDI BERE IZATEAREN ARRAZOI BIHURTU ZEN.”

Felix Aiestaran

Medikuntzan bi liburu, artikulua eta nazioartean saritutako lan zientifiko ugari argitaratu izan ditu. Rekondok, “Guipuzcoa y Tolosa durante la ocupación francesa. 1807-1.813” historiako bere lehen liburua 2007an argitaratzean Tolosarekiko zorra kitatutzat eman zuen. Oraingo honetan, “Medicina y Beneficiencia Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX” liburu berriarekin, medikuntza eta benefizentziaren ildo berri eta arriskutsuaz Tolosako historiaren bilduma gizatiar, gordin eta ederra utzi digu esku artean. Leproseriak,

Jose Antonio Redondo Bravo (Tolosa 1944), erradiologian berezitutako medikua eta EHUko irakaslea da. Medikuntza ikasketak Nafarroako Unibertsitatean burutu zituen, eta Ingalaterra eta Puerto Rico jarraitu zuen ikasten barne medikuntzaren bidetik. Puerto Rico eta Texaseko unibertsitateetan erradiologian berezitu ondoren, Houston-eko MD Anderson zentroan erradiologo lanetan aritu zen. Gipuzkoako Ospitaleko Erradiologia Zerbitzuko ardura bere gain hartuz, Euskal herrira itzuli zen 1978an. Goi Erradiologia teknologia lantzen duen Osatek erakundeko lehen zuzendaria izan zen 1992an.

Arrameleko Miserikordi Etxea, Iurreamendi sortu zeneko Tolosarrismoaren bulkada sozio-ekonomikoa, haur espositoak duen gaixotasuna argudiatuaz harrera familiak miserikordi etxera bueltatutako drama ankerra, edo historiaren joan-etorrien arabera

ospitale militarrek bihurtzen diren benefizentzi etxeen gorabeherak...

Ttikitan Iurreamendira inguratzen zen, bere aita medikuaren eskutik; aitarekiko begirunez eta Tolosari zor zion esker onez, medikuntza eta benefizentziaren haritik tiraka,

Tolosa eta Gipuzkoako gertaera historikoen bilakaera dotorea osatu ahal izan du.

Nola osatu duzu liburua?

Urtebete pasa dut bete-betean liburua bizi. Donostiako Koldo Mitxelena asko lagundu didate, bestetik, artxi-boetan buru-belarri aritu naiz: Gipuzkoako Artxibategian, Udal artxibategian, Ferrolgo Artxibategi Militarrean... Asko gozatu dut jendeari elkarrikerketak egiten. Hogeita hamar edo egin ditut.

Noizkoa da datatua dagoen Tolosako lehen ospitalea?

Tolosa sortu zeneko 1256 urte ingurutik, Ospitale Zaha-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

rra deiturikoa agertzen da eta legendunen etxea ere garai hartakoa da.

Zenbateko eragina izan zuen Jakue Bideak Tolosan?

Jakue Bidearen inguruan uste okerra dago zabaldua. Beti, Nafarroako Bide Frantsesa aipatzen da, baina XIII. mendetik aurrera, Jakue Biderik erabiliena Gipuzkoako barnealdetik zihoana zen; Tolosatik pasatzen zena, alegia. Berezko bide komertzial errazena bera zen. Erromesak garai hartan oso ongi hartuak ziren, eta hasiera batean ere eskale gutxi zeudenez, hauek ere nahikoa ondo hartuak ziren. Baina, azken hauek ugaritzean, erromesek janzkera

Zein izan zen Erdi Aroko bizargin-zirujauen figura?

Zirujaueri horrela deitzen zieten, garai hartan, bizarra egi-tea moduko lanak ez baitziren horren errazak eta lan hauek ere zirujauak egin behar izaten zituzten. Odol husteak ere egiten zituzten. Ez zuten formazio ortodoxorik: praktikarekin ikasten zuten. Ez ziren oso ongi hartuak, garai hartan, gorputza arima zikintzen zuen gaitzat jotzen baitzen.

Baztanga XX. mendera arte agertzen zaigu...

Bizanziotik XVIII. mendean zabaldu zen Europan. Baztanga txertoa 1800 aurretik sortu zen eta lehen txertoa izan zen, baina ez zen izan oso eragin-korra. Gerra Zibilean Afrikatik etorritako soldaduen baztanga

tzen da, udalak bere gain hartu zueneko garaia...

Eskaleak ugaritu egin ziren eta etxe ikusgarria egin zuten, esfortzu galanta egin ondoren. Udalak bultzatu zuen gehienbat, baina Atodo jauregiko Eruazeko kondea izan zen bertako lehen maiordomo eta ongilea. Konbentzio gerran ospitale militarra bihurtu zen eta Frantsesen gerra amaitzean hauek erre egin zuten. Tolosa miserikordi txerrik gabe gelditu zen, eta hala egon ziren 1830 arte, ez baitzegoen dirurik berria jasotzeko. Tarte horretan Santa Klarako komentua bihurtu zen ospitalea. Beharra zuten tolosarrek, Plaza Berriko Toriletako etxean zuten ospitalea.

Hitz egin dezagun Uzturreko konbalezienteen etxeaz...

Euskal Herriko Bigarren gerrate Karlistetarako bazegoen ospitale hori Uzturre magalean, 1860 aldera. Lasaitasuna eta Naturaren babes behar zuten gaixoak, bertan egon ziren. Moja batek asto batez, ogia eta beste hornigaiak igotzen zizkien egunero.

Zer dela eta zegoen horrenbeste haur abandonatu?

Euskal Herrian, Europarekin alderatuta, haur esposito asko izan zen.

Sasikoak ziren haurrak ezkutuan erditzen zituzten eta ondoren, pertsona esanguratsuen etxeko atarian uzten ziren. 1802 arte Iruñeako inkusara eramaten zituzten Gipuzkoako esposito guztiak, baina hura izugarria zen, bertan gaitasunez ia guztiak hiltzen baitziren.

Tuberkulosia XIX-XX. mendeetan: Zer izan zen Andazarrateko Tuberkulosi Sanatorioa?

1933an zabaldu zen Andazarrateko ospitalea. Gipuzkoan, soilik tuberkulosia tratatzen zuen lehen zentroa izan


zen. Gipuzkoa eta Bizkaiko hirietan astindu latza ematen ari zen tuberkulosia eta oheak falta ziren. Tuberkulosiaren trataera modernoa garatzen hasia zegoen Donostiako San Antonio Abad zentroan, Emiliano Eizagirreren eskutik. Bere jarraitzailea izan zen Paulo Rekondo, nire aita, bertan aritu zen.

Bisitetan, musika, antzerkia eta batez ere, giza berotasuna eramanaz bertaratzen zirenen lekukotzak bildu dituzu liburuan...

Nik, etxean aitek kontatzen zuenaz bizi nuen giro hura. Bisitan, ekintza katolikoko luistarrak joaten ziren, zerbait alaia eskaini nahian. Ez zen erraza bertaratzea eta askok oinez joan behar izaten zuten. Bisitarako oso denbora gutxi izaten zuten eta bisita ondoren jota ateratzen zirenak Etxabebitarate baserrian zegoen tabernan biltzen ziren. Ez zegoen trataera eraginkorrik eta bestetik oso kutsakorra zenez, tuberkulosia zuen bat azaltzen bazen bere sendi osoa baztertua izaten zen. Honek arazo larria eragin zuen, sendikoak tuberkulosi kasuak ezkututzen hasi zirenean. Latza zen gaixo ugari oso gazteak baitziren.

Emiliano Eizagirreren lanak zenbateko garrantzia izan zuen tuberkulosiaren aurka?

Bera izan zen bidegilea prebentzioa eta kirurgia aldetik tuberkulosiaren aurkako borrokan. Alemanian ikasia zen, mediku jantzia, hizlari bikaina... baina bere Donostian gelditzea erabaki zuen, kanpora joan gabe. Nire aita zegoen mediku eskola eratu zuen. Emiliano nazionalista zen eta gerra zibila iritsi zenean, erbestera joan behar izan zuen. 40. hamarkadan itzultzean, mediku kolegioaren lehendakaria zen Luis Martin Santos jeneralak debekatu egiten dio kargu pu-




"XIII. mendetik aurrera, Jakue Biderik erabiliena Gipuzkoako barnealdetik zihoana zen; Tolosatik paseaz, alegia."

berezia hartu zuten, eskaleengandik bereizteko. Erromesek jatorriko eliz agintarien ibiltzeko baimenaren agiria ere izaten zuten, ospitalean onartuak izateko eskubidea baitzuten, besteak beste. Kanpoko eskaleak ez ziren onartuak.

kasuak, Miserikordi Etxean azaltzen direnak, izan ziren azkenak.

Mintza gaitetzen, gehientzat ezezaguna izango den Arrameleko miserikordi etxeaz.... Aldi bat 1774tik 1781era doa eta bestea, 1830 eta 1911 bitartean gara-



“1933an zabaldu zen Andazarrateko ospitalea Gipuzkoan tuberkulosia hesterik ez zuen tratatzen lehen zentroa izan zen.”

blikorik izatea. Suminduta, bere kontsulta pribatura mugatuta aritu behar izan zuen. Oso pertsona garrantzitsua izan zen.

Paulo Rekondo ere aipatzen duzu...

Nire aita zen. Oso langile fina eta ongi formatutakoa. Emilianorekin. Andazarrate, Gurutze Gorriko kontsulta eta Iurreamendiko tuberkulosen pabilioian aritu zen. Lan egin zuen tokietan gozatu egin zuen.

Nola sortu zen Iurreamendiko Miserikordi Etxea 1913an?

Arramelekoa ttikia egin zen

eta inguruan industria ugari zuenez garai hartako Jose Caballero alkateak, Iurreamendiko jabea zen Muñoa fundazioarekin hitz egin eta honek lurrak jarri zituen. Bestetik, Eugenio Insausti donostiarrari bere maitale tolosarra hil zitzaion, eta honek Tolosagatik zerbait egin behar zuela eta, asko lagundu zuen. Tolosa oso industrializatua zegoen eta burgesia indartsu agertu zen. Tolosako Bankua ere bazen. Tolosarrismoarentzat Iurreamendi bere izatearen arrazoi bihurtu zen. Iurreamendiko sarreran zegoen ongileen zerranda osoa eta denek nahi zuten bertan agertzea. Dirua

eman zuen batek protesta egin zuen bere izena agertzen ez zela eta.

Elkarteek ere zeregin handia izan zuten, ezta?

Garai hartan Tolosa CF sortu zen Iurreamendiko lurretan eginiko instalazio bikai-ekin eta bestetik aisialdi elkarteek Tolosaren izaerarekin lotura handia izan zuten. Elkarteen helburua ongi pasatzea zen alde batetik, baina bestetik, helburua, miserikordia etxeari eta Esne Tanta etxeari laguntzea zen.

Hitz egin dezagun Iurreamendiko haur espositoen dramaz. Harrera familiar baztertuak izan ziren beren gaixotasuna aitzakiatza erabiliz...

Artxiboan arakatu ditudan hainbat kasu izugarriak dira. Gurasorik gabe umezurztasun latza jasan izan zuten ia kuarteleko bizitza eginaz. Bekatuaren seme-alabak izatearen zama gogorazten zieten. Nik aztertu ditudan 50 eta 60 urteko espositoen kasuetan zaintzen zituzten mosen artean denetik zegoen. Ez zeuden behar bezala prestatuta, agian. Hunkitu egin naute. Gaur egun, bizi direnen kasu politak ere badaude. Unipapelen esposito horiek lanerako hartzen zituzten eta haietako bat, ingeniari izan zen. Beste bat Villabonan enpresaria da.

Zenbateko eragina izan zuen karlista eta liberalen arteko gerrak?

Tolosa industrializazioaren

eraginez ez zen horren karlista. Bertako batailoi liberalak urtebetez karlisten eraso-ei eutsi zien. Tolosa oso leku estrategikoa zen eta azkenik karlistek hartu zutenean, Gipuzkoako hiriburua bertan kokatu zuten, bertan ospitale eta gune militar garrantzitsuak kokatuz. Tolosako liberal eta karlisten sendieek 36ko gerran ere aurkariak izaten jarraitu zuten.

Zenbateko eragina izan zuen 36 Gerra Zibilak Tolosan?

Matxinatuek herria hartu zutenean, miserikordi etxea Sanjurjo General izeneko Gipuzkoako atzeraguardia ospitale militarra bihurtu zuten. Agiririk ez dago, baina fronte desberdinetatik etorritako 13.500 inguru zauritu ospitalizatuak izan zirela esan daiteke. Gurutze Gorria eta mediku nazionalisten Izaskun ospitalea ere ospitale militarra bihurtu zituzten. Honen eraginez, herritar xehea osasun arre-tarik gabe geratu zen.

Gerra ostea ez al zen okerragoa izan?

Gerra ostean errepresio latza egon zen. Francok egini-ko janari legeen ondorioz gose izugarria zegoen. Razionamentu dela eta nekazari-ek ez dute prezio apale-tan lan egiten. Oso exkaxa zen arrazionamenduaz bizi izan zen jendea 1950 arte, estraperloan erosteko dirurik ez baitzegoen. Elikadura eskasiaz gaixotasunak izan ziren. ■

Beti alai jatorria

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Ximénez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Balorazio psikologikoa:
ebaluazioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

astearte eta ostegunetan, 15:00 - 20:30

ZABALA DESGUAZEAK

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04

Beaibar industrialdea, 18 - BELAUNZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

ESKERRAK ZURI 2008 >>> AXUN AIERBE, AGUSTIN PAGOLA, MIKEL ERRAZKIN ETA BERTSO ESKOLETAKO IRAK

Oroimenaren Eskerrak Zuri

Beste urte batez, jende ugari elkartu zen Tolosako Udaleko pleno aretoan, abenduaren 19an egin zen Eskerrak Zuri aipamen berezien banaketa ekitaldian. Aurtengo ekitaldia ordea, berezia izan zen, ohorezko aipamena jaso zuen pertsona, Axun Aierbe, ez zelako gure artean. Axun oroimenean zela egindako Eskerrak Zuri izan da 2008koa.

Erredakzioa

Ohi bezala, kirol arloko aipamena eman zion hasiera ekitaldiari. Dina Mendikute eta Lide Larrañagak irakurri zituzten arlo honetan aipamena jaso duen Agustin Pagolaren merituak. Biak txirringulak izanik, ondo ezagutzen dute Pagola, eta honenbestez ederki laburbildu zuten bere lana. “Makina bat urte eman ditu Agustin Pagolak kotxeak pres-tatu, bizikletak kargatu eta kilometro mordoxka egiten. Bere garai onena bizi ez duen kirol batean, txirringulartzan. Eta ahaztu xamarrak dauden emakume kirolariek. Eta dena isil isilik. Elite kirola baino, oinarrizko maila sustatzen. 10 bat urte bai ezta Agustin?”, galdetu zioten irribarreak eraginez. Agustin Pagolak urteak dramatzat txirringulartza sustatzen. Oriako txirringulak eskolan hasi, nesken Urrats taldean ondoren eta azken urteak Tolosa CF nesken txirringulak taldeko zuzendari gisa dabil. Mendikutek eta Larrañagak nabarmendu zuten, txirringulak taldean hasteko

baldintza bakarra jartzen du Pagolak, gogoia. Horregatik Galtzaundi euskara taldeak bere lana saritu nahi izan du, merituen irakurketaren amaieran esan zuten bezala, “eskerrik asko Agustin. Kirolak zu bezalako langile finak behar ditu. Soinu handiegirik atera gabe baina aurrera egiten dutenak. Beti aurrera”.

ESKERRAK BERTSOTAN

Kultur arloan ez da pertsona bat nabarmendu nahi izan, talde oso bat baizik. Bertsozale elkarte eta bereziki, Tolosaldeko bertso eskoletan irakasle dabilzanak izan dira aurtengo sarituak. Jon Miranda epaimahaikide eta Txolarre irrati-ko esatariak irakurri zituen merituak. “Bertsozale elkartean jabetuta daude ahozkotasanaren transmisioan bertsolaritzak duen garrantziaz. Urteak dira eskualdeko ikastetxeetan ahozkotasuna eta bertsolaritza proiektua lantzen ari direla, ikasle irakasle eta ikastetxeek harrera ona egin diote egitasmoari, eta 3 urtez lantzen dute bertsolaritza hezkuntza arautuan. Ikasle askok horrekin asetzen dute euren bertso gosea. Beste askok, ordea, gehiago nahi izaten dute. Orain badute horretarako aukera Tolosaldean azken urteetan perretxikoak bezala ugaltu diren bertso eskoletan: Ibarran, Berastegin, Amezketan, Lizartzan, Alegin eta Anoetan martxan dira”. Gauzak ondo, Tolosak ere laster izango du bere bertso eskola. Lan hori guztia eskertu nahi izan dio Galtzaundik Bertsozale Elkarteari. Eskualdeko bertso eskoletako irakasleen ordezkari gisa, Bixente Gorostidi amezketarrak

jaso zuen saria. Nola ez, bertso batekin eman zituen eskerrak:

*Ahozkotasun biziago bat
bihurtuta gure amets
bertsolaritza bere solean
bilakatuta lanabes
eskoletara abitu ginen
hitza kantuz eramanez
Eskerrak zuri bultzada bat da
gure bidean, nola ez
Eskerrak zuri jaso nahi degu
Eskerrak zuei emanez
Eskerrak zuri jaso nahi degu
“segiko degu” hitz emanez*

OROIMEN HISTORIKOA

Gizatasun arloko aipamenduna ezaguna da Galtzaundiko irakurleentzat. Azken urtebetean, gerra zibileko hamaika pasarte ekarri ditu orriotara Mikel Errazkin anoetarrak. Hain justu, Tolosaldean gerra zibilak utzitako aztarna iker-tzen eta galtzaileen ahotsa azaleratzen egindako lana eskertu dio Galtzaundik sari honekin. Amaia Doyague gizatasun ar-

“Axun Aierbe oroimenean zela egindako Eskerrak Zuri izan da 2008koa”

loko epaimaiko kideak irakurri zituen merituak. “Begi zabalik eta beldurrik gabe iraganari begiratzeko, kolorezko betaurrekorik gabe, Tolosan aurre-rapauso itzela ematen ari da. Batez ere, euskal gizarteari bere historia osoan gertatutako hondamendi latzenaren aurrean argazki zuzenena atera ahal izateko. Sekula egin ez zena”. Saria jaso ostean, Errazkinek oroimen historikoa berreskuratze lanetan 6 urte daramatzala azaldu zuen eta eskerrak eman zizkien urte horietan guztietan alboan izan dituen: Testigantzak eskaini dizkien gizon emakumei, Aranzadiko kideei eta Tolosako udalari, besteak beste. Eta



Aretoa leporaino bete zen.

RAKASLEAK IZAN DIRA AURTENGO OMENDUAK



Agustin Pagola, Mari Karmen Mendizabal, Mikel Errazkin eta Bixente Gorostidi.

nola ez, etxeokak ere gogoan izan zituen “Guzti honetan gure ezinegonak aguantatu dizkigutenak dira eta askotan zaplazteko bat merezi izan dugunetan ondoan izan ditugunak”.

OHORE HANDIZ, AXUNENTZAT

Zoritarrez, ohorezko aipamena jaso duen emakumea ez zen fisikoki Udal aretoan izan. Ezin izan zuen ondo merezitako aipamena jaso. Baina guztien oroimenean izan zen. Duela hilabete batzuk zendu zen Axun Aierbe ibartar filologo, irakasle eta ikertzaileaz ari gara. Besteak

beste, Galtzaundiko lehen lehendakari izandakoa zen. Idoia Olano euskara teknikariak ondotxo ezagutu zituen Galtzaundiko lehen urteak eta ondorioz, baita Aierbe bera ere. “1990. urtean Euskal Herri osoan gertatzen ari zen moduan, euskararen eta euskal kulturaren aldeko elkarrekin sortzeko lantalde polita bildu zen Tolosan. Hortik sortu zen Galtzaundi euskara taldea. Gaur eta hemen, maitasun osoarekin gogoratuko dugun pertsona Galtzaundiko lehen lehendakaria izan zen. Euskararen aldeko langile nekaezina”. Galtzaundiko

beste hainbat kideekin batera, urte horietan Axunek martxan jarritako ekimenak oroitu zituen Olanok, baina bereziki Axunen izaera izan zuen gogoan. “Berarekin eskuz esku lanean aritu ginen galtzaunditarrok Axunen aldetik konpromisoa, apaltasuna, elkartasuna eta esku zabaltasuna bezalako baloreak ondo gogoratuko ditugu”. Azkenik, Kike Amonarrirek aldizkari honetan bertan, Axun hil berriaren idatzitakoa ekarri zen gogora. “Azken urte hauetan guztitan ikusten genuen elkar eta egun hauetan harrিতa gelditu naiz urte hauetan

eginak zituen lan guztiekin. Felix Ugarte itzulpen lehia-keta hirutan irabazi zuen, hamaika txosten zituen aurkeztuak mundu osoko biltzarretan eta artikulu asko argitaratuak Euskal Herriko nahiz atzerriko aldizkarietan. Egia esan, ez naiz harritu, Axun ezingo nuelako bestela irudikatu”. Hunkituta, Aierbe zenaren amak, Mari Karmen Mendizabalek jaso zuen ohorezko aipamena, iazko saridun izan zen Pepi Gorostidiren eskutik. Txalo zaparrada luze batek eman zion amaiera ekitaldiari, Axun Aierberen oroimenez. ■

Jubenil mailako txirrindu

OTSAILEAN JOKATUKO DIREN ELITE MAILAKO ESPAINIAKO TXAPELKETAREN

Leire Zubeldia

Ze adjektibo jarriko zenioke 2008. urteari?

Pistari dagokionean, urte perfektua izan da. Dena ezin hobeto atera zait. Errepideak aldiz, zapore gazi-gozoa utzi dit. Nire helburua errepideko Europako eta Munduko txapelketetara iristea zen, eta lortu dut, bai errepidean eta baita pistan ere. Baina ez naiz gutiz gustura geratu. Ekaina eta uztaila artean dena pilatu zitzaidan: errepideko eta pistako txapelketak batetik, eta selektibitatea bestetik. Dena erdizka egiten ari nintzen sentsazioa nuen. Pista primeran atera zitzaidan, sekeltibitatea ere atera nuen, baina errepidean gehiago eman nezakeela uste dut.

2008an garaipen ugari eta garrantzitsuak lortu dituzu. Azalduko al diguzu nolakoa izan den orain artekoa?

Urtea ziklokrosa egiten hasi nuen. Pare bat karrera egin nituen, besterik ez. Espainiako Txapelketan bigarren egin nuen. Ondoren, errepidean aritu nintzen. Maiatzean, Espainiako pistako txapelketa zegoen, eta apirilean, Bizkaiatik deitu zidaten, Donostiako belodromoan ni bakarrik entrenatu ordez, taldekideekin batera entrenatzeko. Haiekin gogor entrenatu nuen eta Espainiako txapelketara indartsu joan nintzen. Nik uste baino hobeto atera zitzaidan: Sei urre eta zilar bat irabazi nituen. Ordura arte inork ez omen zituen horrenbeste domina irabazi Espainiako junior mailako txapelketan.

Uztaileko lehenengo astean,

Ana Usabiagak (Ordizia, 1990) ez du sekula 2008. urtea ahaztuko. Pistan, jubencil mailako Espainiako txapelketan sei urre eta zilarrezko domina bat irabazi zituen. Europako txapelketan bosgarren egin zuen puntuaketako proban. Mundialean, bosgarrena izan zen puntuaketa proban eta seigarren scrach-ean. Jubencil mailakoa izangatik, txirrindulari olinpikoekin lehiatu da: Manchesterren jokatuak Europako txapelketan scrach-eko finalean sartu zen, eta Melbourneko munduko kopan laugarren egin zuen taldekako pertsekuzio proban. Orain, otsailean Mallorcan jokatu den elite mailako Espainiako Txapelketari begira ari da entrenatzen Tolosa CFko txirrindularia. Lau txirrindulari onenek lortuko dute martxoan Polonian jokatu diren mundialetara joateko txartela. Hemeretzi urterekin, elite mailako mundiala lehiatzeko moduan egon daiteke Ana.



Europako errepideko txapelketara joan nintzen. Hemen ez nuen zortirik izan, lehenengo itzulian bizikleta matxuratu baizitzaidan. Aste betera, Hegoafrikan mundialak jokatu ziren eta han atera nuen Europako arantza. Hemendik zuzenean Espainiako errepideko txapelketara joan nintzen, Galiziara. Ordurako indarrak agortuta nituen eta taldekideentzat lanean aritu nintzen. Pozik atera ginen, Irene Santestebanek irabazi baitzuen.

Iraila hasieran, pistako Europako txapelketa jokatu zen. Hemen, pertsekuzio indibi-

dualeko proba nuen begiz jota. Urte hasieran 2 m 53 s-ko marka nuen. Tafallan jokatuak Espainiakotan, 2,40ra jaitsi nuen; Espainiako marka 2,35-ekoa zen. Orduan, marka hau hausteko prestatzen hasi nintzen. Europakoetan, 2,32-ko denbora egin nuen. Brontzezko dominarengandik oso gertu geratu nintzen, 2 m 30 s izan baitzen hirugarren denborarik onena. Proba honetan hamargarren egin nuen eta puntuazioko proban bosgarren. Mundialetan, postu bera lortu nuen proba honetan.

Horiek junior mailako lorpenak dira, baina maila gorenean ere lehiatu zara, eta ondo gainera...

Oraindik jubenila naiz, baina Olinpiadetan egon diren txirrindulariekin lehiatu dut. Ez dago hau baino kategorialtuagorik. Juniorretan Espainiako Txapelketatik Europakoetara alde nabaritu banuen, pentsa zer izan zen niretzat olinpikoekin lehiatzea! Baina dena oso ondo atera zen. Urte hasieran, finalen batean sartzeko helburua jarri zidaten. Manchesterren jokatu zen Europako Txapelketan, scrach-ean finalerako sailkatu nintzen.

ularia olinpikoen pare

PELKETAN, MUNDIALEKO TXARTELA LORTU NAHI DU ANA USABIAGAK



Denak harriturik geratu ziren. Melbournen taldekako pertsekuzioko proban, Leire Olaberria eta Devora Galvezekin sartu nintzen finalera. Gainera, ez nuen uste proba hau egin beharko nuenik. Taldeko erropekin Melbournera bidean nindoala, Espainiako Selektziorekin atera behar nuela esan zidaten. Selektzioko txirrindulari bat gaixotu egin zen eta haren ordeaz parte hartu nuen. Inoiz ez nuen lehendik taldekako pertsekuzio proba batean parte hartu. Laugarren egin genuen.

Ze sentsazio bizitu zenituen Manchester edo Melbourneko belodromoan biraka ari zinela?

Besteen parean joateko inoiz baino gehiago sufritu nuen, baina aldi berean izugarri disfrutatu nuen. Alde batera begiratu eta munduko txapelduna ikusten nuen, bestera begiratu eta olinpiar jokoetako medallista... Aurrean egoteko, oraindik asko entrenatu beharra nuela, eta zer hobetu badudala konturatu nintzen.

Ausardia eta abiadura, zure bi dohain garrantzitsuenak omen dira...

Hala esaten didate. Munduko txapelduna nire lekua kentzen saiatzen bada ere, ni kieto egoten naiz, ez naiz mugitzen. Hori oso kualitate ona omen da. Abiadurari dagokionean, zer esan: Iaz esaterako, karreraren bat sprintean amaitzen bazen denek esaten zidaten: “Ana, zuk irabaziko duzu”. Ni konturatzen nintzen azkarra naizela, baina hortik sprinter-a izatera puska handia dago. Sprinter-a naizela esaten zidanari erantzuten nion, ni ez nintzela sprinter-a, besterik gabe, azkarra nintzela. Baina behin lagun batek esan zidan: “Zu sprinter-a zara, karreran ondo kokatzen baitakizu eta lasterketaren bisio ona baituzu”.

Orain pistako txirrindulariak denboraldiaren bihotzean zaude...

Martxoan amaitzen da denboraldia. Otsaileko lehenengo astean Espainiako Txapelketak jokatuko dira. Hor asko dago jokoan. Martxoan jokatuko diren mundialekora joateko hiru txartel daude jokoan eta lau txirrindulari gabilta punta-puntan.

Horietako bat Leire Olaberria da. Beraz, bi txartel gertatzen dira hiruren artean banatzeko: Gema Pascual, Devora Galvez, eta ni gaude lehia horretan. Ni topera entrenatzen ari naiz plaza hori eskuratzeko. Niretzat amets bat betetzea izango litzateke, 19 urterekin elite mailako txapelketa batean egotea.

Eskura ikusten duzun lorpena da Poloniarako sailkatzea?

Galvezek nik baino sei urte gehiago ditu eta Pascualek 8 urte gehiago. Esperientziarengatik eta sasoi puntuarengatik ni baino gehiago dira, baina egia esan ez ditut nigandik hain urrun ikusten. Urte pare batean beraien mailan egon naitekeela uste dut. Bietakoren bat deskuidatzen bada, euren mailaren azpitik ibiltzen badira, izango dut aukerarik.

Irakasle ona izango duzu gainerra...

Bai. Leire Olaberriak beti lagundu izan dit, baita berarekin taldean hasi aurretik ere. Nire lehenengo Europeoetarako Donostiako belodromoan prestatzen hasi nintzenez, Leire etorri zitzaidan eta esan zidan: “bakarrik entrenatu beharrean etorri zaitez nirekin eta nik lagunduko dizut”. Berarekin entrenatzen aritu nintzen. Beti egon zen hor aholkuak emateko. Eta orain, taldekideak garenean ere, gomendio piloa ematen dit. Beti saiatzen naiz beragandik ikasten. Melbournen munduko kopako lider jarri zenez, podiumetik jaitsi eta gero, nigana etorri eta

esan zidan: “duela urte batzuk, Gema Pascual orain zuk ni bezala ikusten nuen: urruti. Ea zuri ere gauza bera gertatzen zaizun”. Gogoia behintzat ez zait falta.

Iritsiko zaizu ueña, non errepedea edo pista aukeratu beharko duzun. Aukeraketa egina al daukazu dagoeneko?

Bai. Pista egingo nuke. Nik, Cepsa-Euskadi taldearekin neguko kontratua dut, eta badakit, Leireri, errepedeko proba garrantzitsuetan ateratzeko arazoak jarri zikitela. Talde profesional batera joateko aukera hor daukat, baina nahiago dut Tolosa CFn lasai jarraitu. Errepidea pistarako entrenamendu gisa hartuko dut denboraldi berrian.

Duela urte gutxi galdera hau egin izan balidate, erantzuna bestelakoa izango zen. Pista ez zitzaidan batere gustatzen. Agustin Pagolak esaten zidan beti: “Zuk pistan proba egin beharra daukazu”. Nik ezetz esaten nion, belodromoari bueltak ematea aspergarria egiten zitzaidan. Azkenean probatu egin nuen, eta jokatutako lehenengo hiru probak irabazi egin nituen. Jarraitu egin nuen. Lehen, nire ametsa Giroa egitea zen, orain argi daukat pistan nahi dudala aurrera egin.

2012ko Londreseko olinpiadak aipatzea, zer da, gehiegi?

Nire ustez bai. Jende asko esaten dit gauza bera, baina oso zail ikusten dut. Munduko hamabost hoberenak sailkatzen dira joko olinpikoetara. 2016ra arte itxaron beharko dugu. ■

Urtarrilaren 9tik 23ra bitarteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Urtarrilaren 18ra arte: El Bosque: ingurugiro departamentuak antolatutako erakusketa.

»» Otsailaren 14ra arte: Juan Jose Agirre-ren erakusketa.

TOLOSAKO KULTUR ETXEA

»» Urtarrilaren 9tik 18ra: Gureak ere badira adingabe horiek. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren inguruko argazki erakusketa.



ZINEA

LEIDOR

»» Urtarrilak 9: Australia filma 22:00etan.

»» Urtarrilak 10: Madagascar 2 17:00etan.

Australia 19:00etan eta 22:00etan.

»» Urtarrilak 11: Madagascar 2 16:45etan.

Australia 18:45ean eta 21:45ean.

»» Urtarrilak 12: Australia 20:30etan.

»» Urtarrilak 17: Crepusculo 19:30etan eta 22:30etan.

»» Urtarrilak 18: Lepel eskarazko fima 17:00etan. Appaloosa 19:30etan eta 22:00etan.

»» Urtarrilak 19: Appaloosa 20:30etan.

»» Urtarrilak 24: Mision en Mocland haurrentzako filma 17:00etan. Un gran dia para ellas 19:30etan. Gomorra 22:30etan.

»» Urtarrilak 25: Mision en Mocland 17:00etan. Un gran dia para ellas 19:30etan. Gomorra 22:00etan.



»» Urtarrilak 26: Gomorra 20:30etan.

»» Urtarrilak 30: La ola 22:30etan.

»» Urtarrilak 31: Una amistad inolvidable filma 17:00etan.

ZINE FORUM

LEIDOR

»» Urtarrilak 22: Rios y mareas filma 19:15ean eta 21:45ean.

»» Urtarrilak 29: La soledad del corredor de fondo 19:15ean eta 21:45ean.



IKUSKIZUNAK

LEIDOR

»» Urtarrilak 17: Zer duzu negarrez, Marie? izeneko haur antzerkia 17:00etan.

»» Urtarrilak 23: Mi primera vez antzez-lana 20:30etan.



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313



Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.



ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



kutxa



ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

ak

M U S I K A

LEIDOR

» Urtarrilak 16: Bide Ertzean taldearen kontzertua, zuzeneko DC-DVDa grabatzeko, 22:00etan.



BONBERENEAREN 11. URTEURRENA

» Urtarrilak 10: Irrati maratokia. Bonberenea irratiaren inaugurazioa. Honekin batera, Laketa eta Atila y los Hunos taldeen kontzertuak.



» Urtarrilak 11: Turde Island, Japongo taldearen zuzeneko 20:00etan.

MOTZEAN

Tolosaldean Ikastn-en informazioa hemen

Hemendik aurrera, Motzean atalaren lekuan, Tolosaldea Ikastn Zerbitzuak bere txokoa izango du.

Txoko honetan, eskualdean antolatzen diren ikastaroen gaineko informazioa emango da, uanean-uneo ikastarorik interesgarrien gaineko xehetasunak azalduz.

Tolosaldean Ikastn txoko berria finkoa izango da, ale guztietan izango du lekua. Urtarrilaren 23ko alean estreinatuko da zerbitzua.



Guardiako farmaziak

URTARRILA

- Ostirala, 9**
Ugarte M^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Larunata, 10**
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
- Igandea, 11**
Morant R. (Zabalaretta, 1) Tolosa
- Astelehena, 12**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Astearte, 13**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Asteazkena, 14**
Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
- Osteguna, 15**
Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
- Ostirala, 16**
Tolosa M^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Larunbata, 17**
Iturriz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Igandea, 18**
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Astelehena, 19**
Ugarte M^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Astearte, 20**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Asteazkena, 21**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Osteguna, 22**
Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
- Ostirala, 23**
Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa

Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezeta-Abaltzisketa-Albiztur**
Osasun zentroa 943 653 212
- Altzo**
Medikua 943 654 737
- Anoeta-Alkiza-Hernalde**
Medikua 943 652 339
- Baliarrain**
Medikua 943 889 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**
Medikua 943 683 361
- Bidegoian**
Medikua 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**
Osasun etxea 943 672 411
- Ikaztegieta**
Medikua 943 653 329
- Iruya**
Osasun zentroa 943 690 720
- Tolosa**
Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931
San Esteban, hitzordua 943 006 800
Gemikako Arbola, hitzor 943 006 900
Amarozko dispensarioa 943 672 637
Asunzion klinika 943 675 799
(larrialdiak) 943 675 390
San Kosme San Damian
geniatrikoa 943 672 932
Udaltzaingoa 943 675 858
Ur eta Arria (Tolosa) 943 650 016
Ur zerbitzuak (abentak) 639 352 158
Iurreamendi egoitza 943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak 112
DYA 943 672 536
Gurutze Gorria 943 674 888
 943 651 425
Ertzantza 943 673 022
Tolosa Gasa 943 675 320
- Lizartza**
Medikua 943 682 077
- Orendain**
Medikua 943 655 595
- Orexa**
Medikua 943 682 228

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

**JARRI ZURE
PUBLIZITATEA**

943 655 004

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15
- Sagardotegirako sukaldari laguntzaile eta zerbitzaria behar dira. 660 654 317

ETXEBIZITZA

- Etxebizitza salgai izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldia eta komunarekin. 645 718 536
- Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko beste ikasleen bila dabil. 627834993.
- Garaje bat alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

IKASKETAK

- Ingelesko klaseak ematen dira taldeka eta bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. 664 160 268

SALGAI

- Kotxe bat salgai BMW 330 D full equipen 18.000 euro. 629 52 51 50.
- Kotxe bat salgai Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. 617 863 669.
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

HOROSKOPOA

URTARRILAREN 9TIK 23RA ARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Hilabete lasaiak dituzu aurretik. Mendira joan, lekuak ezagutu eta gauza berriak egiteko baliatu beharko zenituzke. Hai-zeberritzeak on egingo ditu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Zure beharra du eta bere ondoan egon beharko zenuke. Eskilarak igotzeko eta jaisteko izaten direla kontutan hartu. Ekonomikoki zailak izando dira hilabete hauek.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Beti besteen arrastoari segika ibiltzen zara. 2009an, iniziatiba hartzen ikasi behar duzu. Zure nortasuna sendotu ezean, beti izango zara besteen meneko.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Aurten inoiz ez bezala maiteminduko zara, baina gogotik egin beharko duzu lan pertsona hori zure sareetara ekartzeko. Saia-tuz gero lortuko duzu.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Osasun aldetik pata xamar ibiliko zara. Sabela izango da ondoeza guztien iturburua. Etxekoekin inoiz baino hobeto moldatuko zara.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Lanean, pauso bat atzera ematea egokituko zaizu ziurrenik. Inbidiak eta ezinikusiak sortuko dira zure inguruan. Ez erori sare horietan eta mantendu burua hotz.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Jarritako helburuak bete nahi badituzu zorrotz jokatu beharko duzu zeure buruarekin. Eguna ondo antolatuz gero denbora librea izango duzu nahi duzun hori egiteko.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Hasi berri den urtean erabaki sendoak hartzea egokituko zaizu. Ingurukoak ahaztuta, zure buruarentzat onena izango denaren alde egin behar duzu apustu. Asmatzeko joera izango duzu.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Ekonomiaren arloan garai latzak datoz. Hau ez da zure kasua izango. Non-baitetik diru sarrera dexentea jasoko duzu. Ez jokatu konpulsiboki.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

2009a zure urtea da. Dena ondo joango zaizu. Ingurukoen begiko izango zara. Baina mantendu hankak lurrean. Asko igoz gero zaplasteko latza har dezakezu eta.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Nekatuta zaudela lanean madarikatzen egoteaz, etorkizunari begira inbertsioak egiteaz. Lasai, lan guzti horien emaitzak jasotzeko urtea izango da hau. Maitasunak zure atean joko du.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Ezusteko bidai bat egin beharko duzu. Arrazoia ez dago garbi baina etxetik nahiko urrun joan beharko duzu. Bestetik, zentzuz jokatzeko ikasi beharko zenuke.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeakoak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: P° San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 357



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400 TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206

gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

**Sormen lana:
marrazketa, margoak,
eskultura.**

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685



Pitxiak
moda eta osagarriak

Tel.: 943 67 47 02
Euskal Herria, 12 - 20400 Ibarra



Inprimaketa digitala
Impresión digital

Offset inprimaketa
Impresión Offset.

Scrigrafia
Scrigrafia

Diseinu grafikoa
Diseño Grafico

Web Diseinua
Diseño Web

Garaiko

www.garaiko.net

San Franzisko Ibiltokia 14, 20400 TOLOSA Gipuzkoa Tel. Fax. 943 655 786
mikel@garaiko.net joseba@garaiko.net

